

Toure, txibato eta hiltzaile 'Sator lokatzak' eleberrian

Bilboko San Frantziskon bizi den etorkin afrikar bitxiaren inguruko bosgarren nobela, bolada baterako azkena, aurkeztu du Jon Arretxek

:: N. AZURMENDI

DONOSTIA. Burkina Fasotik Euskal Herrira etorritako Toure 2012an ezagutu zuten Jon Arretxeren irakurleek, Bilboko 'Afrika txikian' girotutako '19 kamera' eleberrian. Hasieratik zekien idazleak ez zela agerraldi bakarrek pertsonaia izango, eta geroztik beste lau nobela eskaini dizkio.

Bosgarrena, 'Sator lokatzak', aurrekoak bezala Erein etxeak Uzta Gorria sailean argitaratua, atzo aurkeztu zuen Donostian, non aurreratu zuen bolada baterako azkena izango dela, bakea eman nahi baitio aldi baterako afrikarrari, beste proiektu batzuetan murgiltzeko. Ateak zabalik ditu Tourek Arretxeren unibertsoa itzultzeko, eta idazleak uste du itzuliko dela, baina ez daki noiz. Proiektu berriak ere nobela beltzaren ingurukoak izango dira: «Irakurle eta idazle bezala asko gustatzen zait generoa. Nobela beltzean dabilen jendea jende sano eta normala da, eta hori literatura munduan ez da erraza».

Saileko lehen eleberriari izena eman zioten kamerak jasotako irudiak eskaintzen dituzten monitorean begira dagoen polizia-oren ohar eta ibilerekien hasten da nobela. «Kamerak auzoko giroa islatzen dizute, betiko menua: ijitoak, beltzak, mai-ruak, sudakak, putak, yonkiak...».

Toure eta haren estilokoekin batera, San Frantzisko bera da, Bilbo dirdiratsua bion bion dagoen ghettoa, liburuen beste protagonista nagusia. Eta Arretxek ez dakartza bigarren eskuko istorioak, bertatik bertara entzun eta ikusitakoak baizik, nobeletan islatzen duen giroan murgiltzen baita horiek idazteko. Horrenbestez, berez Nafarroako herri txiki eta lasai batean bizi den basauriarrak hilabete dezente igaro ditu azken urteotan San Frantziskon, eta oso maite du au-

zoa. «Asko eman dit, eta pertsona moduan ere asko aberastu nau», dio.

Garai bateko Palanca zen horretan, San Frantziskon, horren gainetik paralelo doan Gorte kalean eta inguruko kalezulo eta plazetan denetarioak ezagutu ditu, eta horietako asko eraman ditu nobeletara. «Auzoak berak idatzi du nobelaren erdia», esan zuen aurkezpenean.

Lumpenaren auzoa izan da, eta izaten jarraitzen du, Arretxek bere liburuetan zehaztasun handiz deskribatzen duen kale-sarea. Putak, droga, etorkin txiroenak... Hala ere, «orain 'gentrifikatzen' ari da. Hips-ter eta modernoak ari dira auzora iristen. Behoko aldetik hasi dira, eta garrantza doaz» nabarmendu du Arretxek, eta erakutsi du nobelan bilakaera hori, gogoratuz hala ere askoz gehiago direla «paperik gabe, lanik gabe, ezer gabe» eguna bazterretan igarotzen dutenak.

Nola askatu uztarririk

Toure bezalako jendea bizi den ghettoa izaten jarraitzen du alegia auzoak, batez ere goiko aldean. Bertan daramatzen urteetan Toure bera ere aldatu egin da. Aurreneko eleberrian zen etorkin txiro eta nahiko galdu bat. Espabilatuko da, pikaro klasi-koaren bidetik, eta denetatik egingo

du bizimodua ateratzeko, berdin zaio gigolo, igarle, buruhandi zezen suzkoan, erdi detektibe... Atxilotu, deportatu eta Afrikara bidali ere egingen dute eleberrietako batean, kontakizuna gogortuz.

Bosgarren honetan, gauza gogorak hitz gordinekin kontatu arren, aurrenekoen giroa itzuli da Arretxe, umore ukituekin koloreztatuz pasadizo oso beltzak. Seriea jarraitu duen irakurleari eza-gunak egingo zaizkion pertsonaia berreskuratu ditu; Osman pisukidea, Kristina 'Sa Kene' maitalea, Xihab...

Tourek nolabaiteko normaltasuna lortu du, baina horrek ez du esan nahi eroso bizi denik. Poliziaren txibato bihurtu da halabarrez, sator, eta bera bezalako egoeran dabilzkanak zaintzera eta salatzerara behartuta dago. Hiltzaile ere bilakatuko da, poliziak aginduta. Hala, nobelaren gai nagusia da «zelan askatu ezarri dioten uztarririk horretatik».

Hala ere, Toure «saizaten da printzipio batzuei eusten, eta uste dut horregatik maite duela jendeak».

Beste proiektu batzuei ekiteko prest da Arretxe. :: MICHELENA



Kixoterren itzalaren atzetik jardun da Iñigo Astiz Mantxan zehar

Udan publikatu zuen artikulu-sorta hura berridatzi eta liburu hibridoa atera du

:: FELIX IBARGUTXI

DONOSTIA. «Elkar etxeok ez zekiten non kokatu liburu hau, saia-keran edo kronikan. Hori gustatu zitzaidan. Inork ez daki oso ongo liburu hau zer den. Nik ere ez. Baina nahi nuke liburu entretenigarria izatea», adierazi du Iñigo Astizek bere 'Kixotenean' dela eta. Lan egingen duen egunkarian -Berria- proposamena eginda, uztailen aste-beterako joan zen Mantxara, Kixoterren parajeetara, eta publikatutako artikulu haiek berridatzi egin ditu -txatal berriak erantsiz-, azkenean erreportajetik harago doan produktua burutu duelarik.

Liburuak Maite Mutuberriaren marrazkiak dakartza, collage tankerakoak. Astizek berak egin zion lankidetzaren proposamena. Egunkarian koloretan publikatu ziren ilustrazioak, liburuan zuri-beltzean, bestela garestiegi aterako zelako. «'On Kixote' liburura egindako bidaia». Honelaxe definitu du Astizek

emaitza. «Aurten lauhun urte dira Cervantes hil zenetik. Joan nintzen lantokiko nagusiengana, eta badaezpada orri oso bat neukan kontraargudioz bete, ezezkoa esaten bazidaten. Baina baiezkoa eman zidaten. Erandiotik abiatu nintzen, furgoneta hartuta, barruan hainbat liburu, hainbat apunte, ni neu euforiko. Madrileraino ondo, baina handik aurrera beldurra. Izan ere, galdera-ikur bat dauka 'On Kixote'-k hasieran: Cervantesek, Mantxa bai, baina ez du herriaren izena



Astiz eta Mutuberria. :: MICHELENA

aipatzen. Mantxako hainbat herri errebindikatu dute beretzat Kixoterren jaioterria: Argamasilla de Alba, Villanueva de los Infantes, Mota del Cuervo... Nola joaten da fikziozko toki batera?»

Ez udako erreportajeak, ez oraingo testuak dira ohiko bidaia-kronika. Liburuaren kontrazalean honela azaldu du Astizek: «Kixotek gurutzatutako lurrak gurutzatzea izan da helburua, eta, literatura modernoaren iturburu nagusietako bateraino heltzen saiatzerakoan, bidean ezinbestean korapilatuz joaten dira literatura eta errealitatea. Kaleak eta liburuak, historia eta kondaira, errealitatea eta fikzioa, bi plano horiek uztartzen diren puntu zehatz horren bila egindako bidaia kontatzen du eskutan duzun lanak».

Historian zehar 'On Kixote'-ri egindako euskal itzulpenetako partearik ere ekarri ditu liburura Astizek. Arestik euskaratu zituen lehen zortzi kapituluak, baina liburu osoa euskarara ekarri zuen lehena Pedro Berrondo apaiza izan zen; lehenbiziko zatia 1976an publikatu zuen, bigarrena 1985ean. Orain, Interneten irakurgai dago beste itzulpen bat, Eneko Iñarrondo goitizenez sinatua; igeltsero omen da.

Gainera, bisitatu dituen herriei buruzko fitxak ere gaineratu ditu, datu praktikokoak dakartzatenak.

KIXOTENEAN
IÑIGO ASTIZ

Ilustrazioak: Maite Mutuberria.
Argitaletxea: Elkar.
Orrialdeak: 112.
Prezioa: 13,50 euro.

R.P.S. 175/15 L.L.G.

2 gafas mō progresivas de alta gama

197€

www.multiopicasgipuzkoa.com

ARRASATE • BERGARA • BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA • IRUN • LASARTE • ORDIZIA • TOLOSA

Consulta las condiciones de la campaña en la óptica. No acumulable a otras ofertas o promociones.

Todas nuestras gafas son colecciones del 2016

MULTIÓPTICAS

número uno en servicios ópticos